

## **GOBERNU BATZARRA**

2016. 12. 26

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria  
Nerea Letamendia Belloso  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Jokin Azkue Arrastoa**

**Beh.Beh. Idazkaria:**

**Karmele Contreras Goikoetxea**

**Kontuhartzailea**

**Ainhua Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren 26an, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.- San Esteban 20an dagoen lokalaren erabiliera zesioa.**

**3.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016ko azaroa eta lehen hamar hilabetetako ekarpenen berrikuspena.**

**4.- Landa Auzoak: 2016ko dirulaguntza.**

**5.- Fatxada margotzeko dirulaguntza.**

**6.- Kontzertazio-Hitzarmena Tolosako 12.4 San Frantzisko pasealekua, 32,34,36 azpiesparruko gauzatze-unitatekoa./ Convenio de Concertación de la Unidad del Subámbito “12.4 Paseo San Francisco 32,34,36” de Tolosa.**

**7.- 41/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko abenduaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- San Esteban 20an dagoen lokalaren erabiliera zesioa.**

Kultura departamentutik proposatu dute Kanean Txaranga Elkarteari San Esteban Auzoko 20an udalak duen lokala erabilera zesioan uztea. Zesio honen belburua elkarteak bertan entsaioak egitea da.

Hau kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Klean Txaranga Elkarteari San Esteban 20an Udalak duen lokala prekariozko izaeran uztea bertan entsaioak egiteko.

Epea: Prekario izaeran izango da zesioa, gehienez ere urte bateko iraunpena, hiru urte gehiago luzatzeko aukerarekin.

**BIGARRENA**.- Zesioa doainekoa izatea finkatzea. Urtean aktuzio bat dohainik egingo du.

**HIRUGARRENA**.- Zesiodunaren kargura izango dira Elektrizitate kontsumo ur, gas eta gainerako gastuak.

**LAUGARRENA**.- Alkateari ahalmenak ematea kontratua sinatzeko.

### **3.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016ko azaroa eta lehen hamar hilabetetako ekarpenen berrikuspena.**

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzia dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko urtarrilaren 18an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu.

**Fra. 2016/12/01      161,09€      Ekarpenaren erregularizazioa**

Udal ekarpenak kalkulatzeko taulan izandako akatsen ondorioz, berrikuspena egin ondoren, zuzenketa erregularizatzeko ordain agiria.

**Fra. 2016/12/16      121.941,32€      Azaroko ekarpena**

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak onartzea:

**Fra. 2016/12/01      161,09€-koa**

**Fra. 2016/12/16      121.941,32€-koa**

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri kontuhartzaitzari ematea.

#### **4.- Landa Auzoak: 2016ko dirulaguntza.**

Udalak, Bedaion gizarte, kultur, kirol eta auzko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du 2016ko udal aurrekontuetan, 6.000 €-koa.

Artubi auzo Elkarteak, 2016ko abenduaren 19an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du:

**\* 2016ko ekintzen memoria**

**\* Gastuen likidazioa**

**\* Fakturak**

**\* Gizarte segurantzaren eta ogasuneko ziurtagiriak.**

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Bedaioko Artubi Elkarteari 6.000€ko dirulaguntza ematea, gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Artubi auzo elkarteari.

#### **5.- Fatxada margotzeko dirulaguntza.**

Udal Aparejadoreak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Kale Nagusia 21 zenbakia duen etxebizitzaren Jabekideei, 402,14€-ko dirulaguntza ematea fatxada margotzeagatik.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kale Nagusia 21eko Jabekideei.

**6.-Kontzertazio-Hitzarmena Tolosako 12.4 San Frantzisko pasealekua, 32,34,36 azpiesparruko gauzatze-unitatekoa./ Convenio de Concertación de la Unidad del Subámbito “12.4 Paseo San Francisco 32,34,36” de Tolosa.**

2016ko azaroaren 25ean, PROMOTORA IRISTIZABAL SL merkataritza-sozietateak ondorengo hitzarmen-proposamena aurkeztu zuen, tramitatzeko eta behin betiko onartzeko: Kontzertazio-hitzarmena, «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparruko gauzatze unitatekoa.

Eta ikusita gaiari buruz idatzi den txosten juridikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El 25 de noviembre de 2016, la sociedad mercantil PROMOTORA IRISTIZABAL, S.L., ha presentado, para su tramitación y elevación a aprobación definitiva, la propuesta de Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4 Paseo de San Francisco 32, 34, 36”.

Visto el informe jurídico emitido al respecto por el Técnico de Urbanismo y de conformidad con lo previsto por la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**-Hasierako onarpena eman diezaiola «12.4 S. Frantzisko pasealekua, 32-34-36» azpiesparruko gauzatze unitateko Kontzertazio-Hitzarmenari.

-Hirugarren klausulari, Tolosako Udalak hartzen dituen konpromisoei buruzko horri, gehitu behar zaio idatz-zati bat, zeinak Tolosako Udala libratzen duen sor daitekeen edozein erantzukizunetatik, baldin eta beteko ez balitu hitzartutako epeak birpartzelazio Proiektua, urbanizazio Proiektua eta eraikitze-lizentzia tramitatu eta onartzerakoan.

-Behin betiko onarpena emateko, baldintza hau bete behar da: aurkeztu behar da urbanizatzeko-kargen zenbatekoaren % 7ren abala, 2016ko uztailaren 18an onartutako Hirigintzako Jarduketa Programan aurreikusitako kargena, hain zuzen.

**ACUERDA**

**PRIMERO.**- Aprobado inicialmente la propuesta de Convenio de Concertación de la Unidad de Ejecución del subámbito “12.4 Paseo de San Francisco 32, 34, 36”, con las siguientes condiciones:

-A la Estipulación Tercera, relativa a los compromisos que el Ayuntamiento de Tolosa adquiere, deberá añadirse un apartado por el cual se le exonere al Ayuntamiento de Tolosa de toda responsabilidad que pueda derivarse del incumplimiento de los plazos acordados para la tramitación y aprobación del Proyecto de Reparcelación, Proyecto de Urbanización y la licencia de edificación.

-La aprobación definitiva queda condicionada a la presentación de un aval del 7 % de la cuantía de las cargas de urbanización previstos en el PAU aprobado el 18 de julio de 2016.

**BIGARRENA.-**Espedientea jendaurrean jarrita edukitzea hoge egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

**SEGUNDO.-**Someter el expediente a información pública durante el plazo de veinte días en el que se pondrán presentar alegaciones.

Xede horretarako Hitzarmen-proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da oso-osorik.

A tal fin se publicará el contenido íntegro de la propuesta de Convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

#### **7.-41/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak **41/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **451.013,54 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** **41/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

#### **Tolomendirekin hitzarmena.-**

Tolosako udala eta Tolomendiren arteko dinamizazio hitzarmenaren proposamena azaldu da lehen aipatutako batzordean eta beraien proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Tolosako udalak Tolomendirekin sinatutako hitzarmena ekainaren 2an, Zerkausia eta Berdura plazarako dinamizatzeko hitzarmena uztailaren 3ko datarekin amaitutzat ematea eta honi dagokion gastuaren ordainketa, 1.715,00 €-koa egitea.

**BIGARRENA.-** Tolosako udala eta Tolomendiren artean hitzarmena sinatzea, irailaren 12ko atzera eraginarekin, Zerkausia eta Berdura plaza dinamizatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari, Merkataritza, feriak eta turismo departamentuari eta interes duenari.

Dena den, Kontuhartzailean txostena falta denez, akordioa bere edukiari baldintzatuta egongo litzake.

### **Haitin “Matthew” urakanak zortu zuen larrialdiko egoera.- Zuzeneko dirulaguntza.-**

Bi mila hamaseiko urriaren 4an “Matthew” urakanak lurra jo zuen Haitin, eta herrialde guztian kalte handiak eragin zituen.

Bi mila hamaseiko irailaren 9ko Gizarte Politikako batzordean, Nazioarteko Lankidetzaren programan diru kopuru bat erabilgarri geratu zen, eta batzordekideek ondorengo onartu zuten:

- Erabilgarri gelditu den 5.320,77€-ko kopurua, aurtun, gertakizun larrietara zuzentzea; eta horrelakorik gertatzen ez bazen, kopuru hori Euskal Funderoa elkarteari bidaltzea proiektu bat koofinantziatzeko”

Testuinguru horretan, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria harremanetan jarri da, batetik, Karitasekin, eta bestetik, Euskal Funderoarekin, Arabako Larrialdiko Funtzarekin (ALF).

Ikusita 2010. urtean Karitasen bitartez kudeatu zela larrialdiko laguntza, eta bestetik, aurkeztutako proiektua: JEAN RABEL ETA MOLE ST. NICOLASEKO HERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO MIKRO-PROIEKTUA -MATTHIEW-URAKANAREN ONDOREN”.

Nekazaritza ekoizpena bultzatzen laguntza eta sentsibilizazio eta medikazio kiten banaketarekin kolera epidemiari aurre egiten laguntzea, egokia eta bideragarria dela, Gobernu Batzar honek, aho batez, alkateak emandako ahalmenez baliatuta eta Gizarte Politika Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Nazioarteko Lankidetzaren Programan dagoen 5.320,77€, aipatutako proiektura bideratzea.

**BIGARRENA**.- Aurkeztutako proiektuaren kostua 6.000€ direla eta, falta diren 679,23€ jartzea.

**HIRUGARRENA**.- Ordainketa egiteko 2016ko dagokion partida erabiltzea.

**LAUGARRENA**.- Ordainketa egitea Donostiako Elizbarrutiko Karitas-i.

**BOSGARRENA**.- Proiektua gauzatzekoan dagokion memoria eta gastuen justifikazioa eskatzea.

**SEIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Gizarte Politikako departamentuari eta interes duenari.

### **Ordenagailuak Saharara. Desioak Sutan 2015.**

Udalak CPU zahar batzuk ditu, 34 inguru, eta asmoa dago Saharara bidaltzea; halere, horiek bidali aurretik garbitu egin behar dira eta kostu ekonomiko bat du -1036 €-.

Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 34 ordenagailu garbitzea CDI-Informatika Enpresaren bitartez eta 1.036 €ko dirukopuru onartzea, Saharar aurreko agur festan lortutako diruaren kontura -561101ko partidatik-.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **“La Caixa”rekin sinatuta dagoen hitzarmenaren luzapena.-**

“La Caixa” Fundazioak susstatuta, adinekoen partaidetza aktiboa bultzatzeko, egoki zahartzeko ohiturak eta ezagupenak aurreikusi eta zabaltzeko asmoarekin, programaren hitzarmena luzatzeko proposatu dute.

Uzturre Zentro sozialen aurrera eraman den Gente 3.0 programaren balorazioa oso ona izan dela kontuan izanik eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Lankidetzaren hitzarmena 2017ko abenduaren 31ra arte luzatzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, “La Caixa” Fundazioari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **Tolosako Caritas-i dirulaguntza ematea.-**

Tolosako Udalerrian Gizarte Zerbitzuen eta Osasun alorrean lan egiten duten taldeei dirulaguntzak ematea onartu zuen Gobernu Batzarra.

Ezarrita dagoen aurrekontutik 3.879€-ko kopurua soberan gelditu zela eta, Tolosako Caritasek gizarte bazterkerian dauden pertsonen harrera zuzena egiten duelako, eta sarritan udaletik bideratutakoak direlako, Administrazioak kasu guztiei aurre egiterik ez duelako.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Tolosako Caritas-i 3.879€ko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Tolosako Caritas-i, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamenruari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Karmele Contreras Goikoetxea**